



Arartekoaren 2018R-1243-17 Ebazpena, 2018ko otsailaren 27koa. Horren bidez, Arrasateko Udalari gomendatzen zaio kexan salatzen den trafiko-araudia ez betetzearekin lotutako egoera egiaztatzeko eta, hala badagokio, neurri egokiak har ditzan egoera hori konpontze aldera.

Aurrekariak

1. Arrasateko Aragoa kalean bizi den pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoaren aurrean. Horren bitartez, unibertsitate eremuan eta horren inguruko auzoetan TAO gunea ezartzearen ondorioz Uribe Auzoko eremua zer egoeratan geratu den salatu du interesdunak.

Kexan adierazitakoaren arabera, eremu horietan TAO gunea ezartzeak hauxe eragin du: unibertsitate eremura nahiz leku horretan dagoen taberna eremura datozenek Uribe Auzoan aparkatu behar izatea. Aipatutako neurria hartu aurretik aparkaleku plaza gutxiegi zeuden jada, eta orain ez dago aparkatzeko premiak asetzeko behar adina plazarik.

Kexagileak adierazten zuen auzoan dauden aparkaleku plazen kopuruaren eta eskari berriaren arteko desoreka aparkatzeko arazo larriak eragiten ari zaizkiela auzokideei, eta, hortaz, eremu horretan trafiko araudia etengabe hausten da: askok espalioen gainean eta desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazetan aparkatzen dute.

Kexa horretan adierazten zen Aragoa kaleko jabeen erkidego batek 2016ko urtarrilaren 28an aurkeztu zuela idazki bat udalean (XXX zenbakidun sarrera-erregistroa); bertan, egoera azaltzen zuen eta TAO kale horretara hedatzeko eskatu ere bai. Halaber, jakinarazten zen udalak idazkiari erantzun ziola, hain zuzen ere, aukera hori aztertzen ari zela adieraziz.

Kexagileak helarazitako dokumentazioari erreparatuta, 2017ko martxoaren 9an berriro ere egin zen eskaera hori bera (YYY zenbakidun sarrera-erregistroa), eta auzokide gehiagok bat egin zuten harekin. Eskaera horretan, azpimarratzen zen urtebete igaro zela aurreko eskaeratik eta, denbora horretan zehar, arazoa larriagotu zela. Horrez gain, adierazten zen egoera jasanezina zela eta laster konpontzeko eskatzen zen. Kexaren arabera, udalak eskaera berri hori ebatzi





zuen, eskatzaileei adieraziz kontu hori udalerriko Mugikortasun Integraleko Planaren baitan aztertuko zela.

Hala eta guztiz ere, kexagileak adierazten zuen, Hirigintza Arloan ahoz eman zioten informazioaren arabera, kexan aipatutako gunea ez zegoela aipatutako planaren barruan sartuta, kanpoaldeko gun bat izateagatik.

2. Kexa aztertu eta hori izapidetzeko onartu ostean, Arartekoak Arrasateko Udalera jo zuen gaiari buruzko informazioa eman ziezaioten.

Eskaera horri erantzunez, udalak erakunde honi jakinarazi zion kexan azaldutako kontuen inguruko iritzia emango zuela Mugikortasun Integraleko Plana onesteko prozeduraren esparruan; izan ere, horren informazio publikoko izapidean iradokizun gisa gehitu zen 2017ko martxoaren 9ko eskaera, hain zuzen ere, aurretik aipatu dena.

Era berean, udalak adierazi zuen aipatutako prozeduran jarduketa hauek geratzen zirela egikaritzeke: Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Informazio-batzordearen erabakia; planaren azken dokumentuaren proposamenaren idazketa eta iradokizunen erantzuna; planaren behin betiko dokumentuaren onespena eta aurreikusitako neurrien aplikazioa.

Informazioan ez zen plana onesteko eta aplikatzeko aurreikusitako egutegia zehazten eta erakunde honek jotzen zuen hori beharrezkoa zela. Hala, kontuan hartu behar da ia bi urte igaro direla udalean lehen aldiz arazoaren berri eman zenetik, eta badirudi tarte honetan ez dela beste irtenbiderik eman: TAO zerbitzua auzora zabal daitekeen aztertuko den hasierako konpromisoa baino ez eta, gero, oro har planari lotzea, beste inolako zehaztapenik gabe tresna hori lantzeko eta aplikatzeko egutegiari dagokionez eta arazoa konpontzeko eskain ditzakeen aukerei dagokienez. Gainera, kexagilearen arabera, arazoa larriagotzen ari da denborak aurrera egin ahala.

Informazioan ez da argitzen plan horrek auzo horretako zirkulazioa antolatzen duen edo ez eta, gogoan izango duzunez, horixe zen irtenbide horri lotuta kexan adierazitako eragozpenetako bat, hau da, planak ez zuela gun hori barnean hartzen.

Udalaren informazioa ikusita, Arartekoak uste zuen, TAO zerbitzua Uribe Auzora zabaltzeari dagokionez Mugikortasun Integraleko Planaren esparruan har





daitezkeen irtenbideak eta kexan azaldutako gainerako kontuak alde batera utzita, udalak egiaztatu behar zuela espaloi gainean eta ezgaituentzako plazetan aparkatzeko debekua modu orokorrean eta etengabe ez den betetzen, kexan salatzen den bezala. Hala balitz, debeku hori betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko lituzke gehiago luzatu gabe. Era berean, uste zuen udalak egiaztatu behar zuela kexan salatutako aparkaleku arazo larriak gertatzen ari diren, eta hala balitz, haiek arintzen laguntzen duten neurri iragankorrak hartzeko bideragarritasuna aztertu beharko luke, harik eta Mugikortasun Integraleko Planaren esparruan behin betiko irtenbidea ematen zaion arte.

Arartekoak balorazio hori helarazi zion udalari, horren gainean zuen iritzia eman ziezagun eta guk adierazitako ildoan jarduteko prest dagoen azal ziezagun.

3. Eskaera berri horri erantzunez, udalak jarraian jasotzen den informazioa eman du azaldutako kontuen inguruan:

a) Planaren onespén eta burutze egutegia:

“Gure udalerraren Mugikortasun Integraleko Plana egiten ari gara 2016az geroztik, eta herritarrekin eta mugikortasun mahaiko eragileekin eztabaida luze eta oparo baten ostean, pentsatuta dago aurrean, abenduan, behin betiko onartzea.

Zehazki, une honetan idazten ari gara Mugikortasun Planaren agiria, zeinak jasotzen dituen erabakiak Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Batzordeak ontzat emanak, zeina aurkeztuko zaion osoko bilkurari, onartu dezan.

Planaren xedea da udalerraren osoaren mugikortasuna zabaltzea modalitate guztietan (oinezkoak, garraio publikoa, automobilak...), eta planak egin du arazo guztien azterketa sakon bat. Aurrekoarekin bat etorruta, neurri batzuk jasoko ditu, antzemandako arazoei aurre egiteko. Horregatik, udalerraren osoa aztertu denez, aztertu da ere ARAGOA kalea, mugikortasun modalitate guztiei dagokienez.

Gainera, iradokizuna, ARAGOA kaleko bizilagunek eginga, berriaz jasoko du akordioak, behin betiko onartuko duena Mugikortasun Integraleko Planak, eta jakinaraziko zaie interesdunei.”





b) Trafiko-arauak ez betetzea eta horren egiaztatzea:

“Ez dugu jasota sistematikoki hori gertatzen dela, hau da, ez dela betetzen araudia. Udalak ezin du onartu ezelan ere bide zirkulazioko araudia ez betetzea, eta bereziki ibilgailuak aparkatzea ARAGOA kalearen inguruan, beste inon ez bezela. Horregatik, kexa bidaliko zaio Udaltzaingoari, horren berri jakin dezan eta jardun dezan dagokion eran.”

c) Aparkaleku arazoak eta horren egiaztatzea:

“Halako arazo handiak, kolaborazio eskaeran aipatzen direnak, gertatzen dira gurea moduko udalerrri batean, eta gertatzen dira ere gure herriko beste auzo batzuetan edo gure eskualdeko beste hiri eta herri batzuetan.

Aparkaleku gutxi egotearen arazoa gertatzen da bi egoera batzen direlako, eta horrek sortzen du gure herriko kaleek ezin dutela jasan erradio labur batean ibilgailuen parke guztia jende gehien bizi den eremuen inguruan.

Egoera horien lehena da Gipuzkoako haranetan herriek, haien ezaugarri morfologikoengatik, leku lau gutxi daukatela; horrek ekarri du populazioaren dentsitateak izatea oso handiak leku lau gutxi batzuetan. Bigarrena da ibilgailuen parkea handitu dela izugarri. Egoera biak batuta eremu jendetsuetan, sortu da ibilgailuen saturazio bat, behartzen dituena ibilgailudun herritarrak handitzen aparkaleku eremua eta joaten beste eremu batzuetara, haien etxebizitzatik urrunago, eta ezinbestean egokitu behar zaizkio egoera horri eta aldatu behar dituzte ohiturak.

Udalerrri osoan ibilgailuen aparkalekuei buruz hartu behar diren neurriak (TAO eta antzeko beste batzuk edo bestelakoak) zehaztuko dira Mugikortasun Integraleko Planean, eta jardueren benetako egutegia, planetik datorrena, zehaztuko da hurrengo urteetan, udal organoen lehentasunen arabera.

Auzo horrek aparkalekuetan saturazio arazoak dituenek, herriko beste leku askotan dauden modukoak, ez da komeni hartzea neurri espezifikorik inguru horretarako, arazoa erlazionatua eta orokorra da eta.”

4. Erakunde honek bildu duen informazioaren arabera, oraindik ez da Mugikortasun Integraleko Plana onetsi.





Bestalde, kexagileak berriz ere jo du erakunde honetara eta adierazi egin du ez dela inolako aurrerapenik egon arazoa konpontzeko kexa izapidetu den bitartean. Horrez gain, esan du, denboraren poderioz, egoerak larriagotzen jarraitzen duela. Halaber, nabarmendu egin du Udaltzaingoak jarduketarik burutu ez duela aparkaleku desegokien aurrean eta adierazi du ez duela horrekin lotutako aldaketarik antzeman. Hala, egoeraren jasanezintasuna eta larritasuna azpimarratu ditu. Adierazten duena babeste aldera, orain dela gutxiko zenbait argazki aurkeztu ditu, data eta leku desberdinetan egindakoak, non espaloien gainean aparkatutako ibilgailuak agertzen diren.

Gogoetak

1. Trafikoko araudiak udalei esleitzen die bere titulartasuneko hiri-bideetan trafikoa antolatu, kudeatu, kontrolatu, zaindu eta diziplinatzeko eskumena, zehazki, berezko agenteen bidez. Horrez gain, bide horietan egiten diren arau-haustek salatzeko eta horiek zigortzeko eskumena esleitzen die, beste administrazio bati berriaz esleitu ez zaionean (Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. artikulua, baita Arrasateko Zirkulazioaren eta Herri Barruko Bideen Erabileren gaineko Udal Ordenantzaren 7. eta 14. artikulua ere).

Araudi horrek arau-haustetzat sailkatzen ditu bere aginduen aurkako ekintzak eta omisioak eta horien artean dago espaloietan, pasealekuetan eta oinezkoak igarotzera bideratutako gainerako guneeetan aparkatzeko debekua, baita gaikuntza-titulurik ez dutenek ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekuetan aparkatzeko debekua ere. [Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren 74. artikulua eta hurrengoak; 76.d) eta 40.1.j), hain zuzen ere, azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onetsitako Zirkulazioko Arautegi Orokorren 94.2.e) artikuluari eta Ordenantzaren 51. eta 69. artikuluei eta hurrengoei dagokienez].

Hala, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak hiri-bideetan ibilgailuen eta pertsonen antolamenduaren arduraren kargu uzten du [25.2.g) artikulua].

Bestalde, Euskadiko Tokiko Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legeak euskal udalerriari esleitzen dizkie eskumenak trafikoa antolatzeari, bide-segurtasunari eta





ibilgailuak aparkatzeari dagokienez, hain zuzen ere, legeria aplikagarriaren esparruan [17.1.54) artikulua].

Abiapuntutzat hartuta udalei trafikoko araudian esleitutako eskumenak eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2.a) artikuluaen aurreko idazketak udalei leku publikoetako segurtasunarekin lotuta esleitzen zizkienak, Auzitegi Gorenak hauxe adierazi du: *"existe un auténtico derecho subjetivo de los ciudadanos a que se adopten las medidas que, de una manera realmente eficaz, garanticen la seguridad de la circulación viaria peatonal"* (Administrazioarekiko Auzien Salaren uztailaren 19ko 6056/2000 Epaia, 4. atala, Zuzenbideko Bigarren Oinarria).

Bestalde, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak bide-segurtasuna sistemaren partetzat jotzen du eta sistemaren printzipio orientatzaileen artean, hauek ezartzen ditu: arriskuen eta mehatxuen prebentzioa; arazoen identifikazioa; erantzunaren plangintza eta emaitzen ebaluazioa. (1., 2. eta 3.1. artikulua). Legeak udalek bide-segurtasuna mantentzeko dituzten eskumenak ezartzean, trafikoko eta bide-segurtasuneko araudira jo behar dela adierazten du (6. artikulua).

2. Kexa jartzea eragin duten aparkaleku desegokien arazoa, erakunde honen ustez, aipatutako xedapenek Arrasateko Udalarari esleitzen dizkieten eskumenen eremuan sartzen da, hain zuzen ere, udalerrian trafikoko eta bide-segurtasuneko arauak betetzen direla bermatze aldera.

Erakunde honen ustez, begi bistakoa da aparkalekua arautzen duten arauak urratzen diren egoera batek, kexan salatzen dena bezalakoa, bide-segurtasunean eta oinezkoen mugikortasunean eragiten duela.

Hortaz, Arartekoak uste du, udalak arlo horretan dituen eskumenek babesten dutela kexagilearen asmoa, hau da, administrazioak jardutea, hain zuzen ere, salatzen den trafikoko araudiaren urraketa-egoera konpontze aldera.

Azaldu egin den bezala, udalak erakunde honi jakinarazi dio ez zekiela ez-betetze egoera hori ematen ari zenik.

Hala eta guztiz ere, adierazi beharra dago Mugikortasuneko Plan Integralaren Ekintza-planaren 2017ko otsaileko laburpen-dokumentuak berak, webgunean argitaratutakoa, arazoa aitortzen duela, zehazki, hauxe adierazten duenean: *"La*





indisciplina en el aparcamiento por un breve espacio de tiempo (para compras pequeñas u otras gestiones personales) es una práctica bastante frecuente y muy habitual en el municipio de Arrasate-Mondragón, pero que se tiene que corregir". Horrez gain, dokumentuan hauxe adierazten da: *"Aunque la zona peatonal/comercial de Arrasate-Mondragón es la que más sufre, es fácil encontrar vehículos aparcados en la calzada en las zonas comerciales o encima de las aceras y, en general, en los espacios destinados a los peatones y ciclistas."* (5.4. Atala: Bide publikoan aparkatzearen diziplinarik eza kontrolatzea).

Arartekoa bat dator udalarekin, hau da, administrazio horrek ezin du baimendu gune horretan trafikoko araudia urratzea, ezta beste gune batean ere.

Hala ere, kexagileak erakunde honi emandako informazioaren arabera, ez du ematen horrekin lotuta iragarri zuen neurriak, hau da, udaltzaingoari kexa helarazteko neurriak, horren arabera jarduteko, egoera zuzendu duenik. Adierazi den bezala, kexagileak esan du, udalak neurri horren berri eman zuenetik igarotako hiru hilabete baino gehiagoko epean, ez duela antzeman poliziak zainketa handiagorik egiten duenik, ezta salatu zuen egoera hobetu denik ere.

Bestalde, oraindik ez da Mugikortasuneko Plan Integrala onetsi baina, erakunde honen ustez, horrek ezin du justifikatu udalak trafikoko araudiaren betetze-maila zaintzeko eta kontrolatzeko duen lege-agindua urratzea.

Hortaz, Arartekoak berriz ere azpimarratu behar du, horren arabera ezar daitezkeen plana eta neurriak gorabehera, udalak atzerapenik gabe egiaztatu behar duela kexagileak salatzen duen aparkaleku desegokien egoera. Horrez gain, bide-segurtasuna eta trafikoko araudia betetzen dela bermatu behar da, hain zuzen ere, kexak aipatutako gunean.

3. Antolamendu juridikoak erabakiak hartzeko tarte handia ematen die udalei ibilgailuen zirkulazioa antolatzeko bere titulartasuneko hiri-bideetan; aparkalekuetara bideratutako espazio publikoen erabilera arautzeko eta aparkaleku mugatuko neurriak ezartzeko [Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren 7. artikulua; Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.g) artikulua eta Euskadiko Tokiko Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.4) artikulua]. Horrek esan nahi du legezko ahalmena daukatela existitzen diren balizko aukeren artean egokiena deritzena hautatzeko, ahalmen hori





ematean ezarritako helburuak betetze aldera, betiere hori gauzatzeko mugak errespetatuz.

Erabakiak hartzeko ahalmenak gauzatu beharreko kasuetan, Arartekoak ez dauka eskumenik administrazioak duen balioespen-tartearen barruan eman duen araubidea beste araubide batekin –desberdina den edo beste irizpide batzuetan oinarrituta dagoen batekin– ordezkatzeko, irizpide horiek besteak bezain arazoizkoak izan arren, balorazio-arlo horretan, berezkoak dituen ahalmenak zilegi erabiltzeak ematen baitio babes administrazioari.

Gune zehatz batean aparkaleku mugatuko neurriak ezartzeko erabakia, erakunde honen ustez, erabakiak hartzeko eremu horretan sartzen da; horrek, azaldutako arazoengatik, Arartekoak horren inguruko iritzia emateko aukera baztertzen du.

4. Udalak aitortu egin du arazo hori, hau da, kexan aipatutako gunean aparkaleku nahikorik ez dagoela; hala ere, adierazi du arazo hori, gune horretan ez ezik, udalerrri osoan dagoela eta, bere ustez, horrek justifikatzen duela aparkalekuaren arazoari modu integralean eta planifikatuan aurre egitea.

Erakunde hau bat dator azkenengo balorazio horrekin, baldin eta, udalak dioen bezala, udalerrriaren arazo orokorra bada eta gune batean ezartzen diren konponbideak beste batzuetan eragiten badute. Gainera, kontuan hartu behar da arazoen identifikazioa eta erantzunaren plangintza, esan den bezala, Euskadiko segurantzaren publikoko sistema orientatzen duten lege-printzipioetako bi direla eta horren barruan sartzen dela bide-segurtasuna.

Kexagileak berak gune desberdinen arteko lotura nabarmentzen du; izan ere, bere auzoan aparkalekurik ezaren arazo larriagotu egin da aldameneko gune batean aparkaleku mugatuko araubide bat ezarri dutelako.

Gauzak horrela, eta aitortuz Mugikortasuneko Plan Integrala onesteko prozedura teknikoki konplexua dela eta emandako azalpenetan deskribatzen dena bezalako egoera batean trafikoa antolatzearekin lotutako erabakiak hartzea ere zaila dela, Arartekoak ezin du alde batera utzi bi urte baino gehiago igaro direla udalari lehendabizi azaldu zitzaionean arazo hori, hau da, kexan azaltzen den bezala, aparkaleku nahikorik ez dagoela. Horrez gain, denbora horretan zehar, ez da aurrerapausorik eman neurri zehatzak hartzeari dagokionez eta auzokideek ez dute erantzunik jaso, Mugikortasuneko Plan Integralaren helarazpen orokorrak gain. Halaber, denboraren poderioz, arazoa larriagotzen da; plana oraindik ez da onetsi





eta, udalaren informazioaren arabera, planaren babespean eskaintzen diren konponbideak emateko urteak igaro daitezke. Gainera, ezin da ahaztu kexagilea bizi den auzoan aparkalekurik ezaren arazoa larriagotu egin dela, hain zuzen ere, bere informazioaren arabera, aldameneko gunean aparkaleku mugatuko araubide bat ezarri delako, hau da, kexan demandatzen dena bezalako neurri bat hartu delako, integrala ez dena eta udalerrri osorako aplikatzen ez dena, baizik eta gune zehatz batean soilik.

Inguruabar horiek guztiak kontuan hartuz, erakunde honek berriz ere azpimarratu behar du komenigarria dela udalak neurri iragankorrak hartzearen bideragarritasuna aztertzea, Mugikortasuneko Plan Integralaren esparruan behin betiko irtenbide bat eskaini arte. Hala, neurri horiek, kexaren arabera, gune horretan existitzen diren aparkaleku-arazo larriak arinduko dituzte; izan ere, dirudenez, horiek espaloietan eta ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekuetan aparkatzeko debekua urratzen dute eta hori ere salatzen da.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako gomendioa luzatzen dio Arrasateko Udalari:

GOMENDIOA

Kexan salatzen den egoera egiaztatzeko, hau da, espaloien gainean eta ezgaitasuna duten pertsonentzako espazioetan aparkatzeko debekua urratzen ari den egiaztatzeko eta, hala bada, dagozkion neurriak har ditzan, debeku hori betetzen dela bermatze aldera, esan bezala, egoera hori baieztatzen bada.

Kexan salatzen diren aparkaleku-arazoak arintzeko neurri iragankorrak hartzearen bideragarritasuna azter dezan, Mugikortasuneko Plan Integralaren esparruan behin betiko konponbide bat eskaini arte.

Hartutako neurrien segimendua egiteko, kexa eragin duen arazoa konpontzeko egokiak diren egiaztatzeko eta horren arabera jarduteko.

